



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko abenduaren 29a

146. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru lege proposamena, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzekoa. Proposamena erretiratzea (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñeko sarrerako panelak alda ditzan, hiria-
ren bi izen ofizialak ager daitezen. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-
taldeek aurkeztu dute (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ludopatia sar dezan Drogamenpekotasunei
buruzko Foru Planean, substantziarik gabeko menpekotasunen esparruan. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafa-
rroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da langile publikoekin bete dezan mendekotasu-
nagatiko prestazioak eskatzen dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoa baloratzeko zerbitzu pribatizatua.
Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur pobreziaren prebentzio eta kontrolerako
sistema bat ezar dezan Nafarroako ikastetxeetan. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan hartu CRANA fundazioaren behin
betiko desagerraraztea ekarriko duen erabakirik. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa
Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die San Martin Unxeko Santa
Zita egoitzako langileei. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan Liburutegi Publikoen Sarean
gertatzen diren aldi baterako edo betiko bajen eta lanaldi murrizketen ondorioz hutsik geratzen diren lan-
postuak. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bide berriak azter ditzan ETB Nafarroa
osoan LTDaren bidez ikusteko. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia
(10. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak jotzen baitu iraupen luzeko langabetuentzako laguntzak bateragarri izan behar duela gizarteratze-errenta jasotzearekin. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu konpromiso irmoa duela haustura hidraulikoaren erabilera debekatzen duen foru legearen edukiarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, 2010ean hasitako Higiezinak berrantolatzeke Planaren hirugarren fasea bukatzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, laguntza espezializatuko zerbitzu desberdinetako egutegiak ixteari buruzkoa. Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin du (13. or.).
- Galdera, koloneko minbizia prebenitzeko programari buruzkoa. Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin du (13. or.).
- Galdera, iragan abenduaren 14an Bilbon jokaturako Lau eta Erdiko Pilota Txapelketaren finalari buruzkoa. Amaya Zarranz Errea andreak egin du (14. or.).
- Galdera, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko 33/2013 Foru Legearen 11. eta 12. artikulua betetzeari buruzkoa. Txema Mauleón Echeverría jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Zerga Ogasunarekin indarrean dauden zerga-zorrei buruzko galderari emandako erantzunaren gainekoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (15. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Mahaiaren 2013ko abenduaren 30eko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea (16. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru lege proposamena, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzekoa.

PROPOSAMENA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko foru lege proposamena erretiratu izanari dagokionez, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990

Foru Legea aldatzekoa. Proposamena 2014ko abenduaren 12ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñeko sarrerako panelak alda ditzan, hiriaren bi izen ofizialak ager daitezen.

BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentutaldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Iruñeko sarrerako panelak alda ditzan, hiriaren bi izen ofizialak ager daitezen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Honako ekimena sinatzen duten parlamentutaldeen, Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

18/1986 foru legeak dioen bezala bere 8. artikuluan,

1. Foru Komunitateko toponimoek gaztelaniaz eta euskaraz izanen dute izendapen ofiziala, honako arau hauen arabera:

a) Eremu euskaldunean, izendapen ofiziala euskarazkoa izanen da, non ez den beste izen bat gaztelaniaz; hala bada, biak erabiliko dira.

b) Eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean, izendapen ofiziala gaur egungoa izanen da. Hala ere, gaztelaniaz adierazitakoek euskarazko izen-

dapen desberdin, jatorrizko eta tradizionala baldin badute, biak erabiliko dira.

2. Nafarroako Gobernuak, Euskaltzaindiaren alde aurreko txostena kontuan izanik eta artikuluhonen lehendabiziko atalean aurrez ikusitakoaren arabera, Foru Komunitateko toponimoak eta lurralde, herri eta herriarteko bideen izen ofizialak erabakiko ditu eta, orobat, horren berri eman beharko dio Parlamentuari. Herri barruko bideen izena jarritza udal bakoitzari dagokio.

3. Gobernuak erabakitako izenak, aurreko ataletan xedatutakoaren arabera, legezkoak izanen dira ondorio guztietarako Nafarroa osoan, eta errotulazioa haiekin bat etorriko da. Nafarroako Gobernuak errotulazio publikoaren normalizazioa arautuko du, betiere Estatuak bere egin dituen nazioarteko arauak errespetatuz.

Jakinik "Pamplona" eta "Iruña" izenak agertzen direla Nafarroako Gobernuak egindako argitalpean "Nafarroako izendegia 2013-1-1ean" non udalerrien izen ofizialak agertzen diren; argi gelditzen da gaztelaniaz eta euskaraz horiek direla Nafarroako hiriburuaren izen ofizialak.

(http://www.cfnavarra.es/estadistica/agregados/nomenclator/nomenclator_2013_web_ien.pdf web orrian dago).

Beraz, Gobernuak erabakitako izenak (kasu honetan Pamplona eta Iruña) legezkoak dira ondorio guztietarako Nafarroa osoan, eta errotulazioak haiekin bat etorri behar du. Argi eta garbi adierazten du hori 1986ko Euskararen Legearen 8.3 artikulua.

Horrela izanda ere, Iruñeko hiri sarreretako kartelak Gaztelania hutsean daude, "Pamplona" besterik ez dute jartzen Iruñeko hiri sarreretako kartelek. Hau ikusten da ondorengoetan: A12 Etxabakoitzeko sarrera; Zaragozako etorbidean, Arrosadiako sarreran; Beloso etorbidean, Burlata-

ko sarreran; PA-30 / NA-700 errotondan; PA-31-n; PA-34-an eta NA-30ean, Landabenen.

Kartel horiek Nafarroako Gobernuaren esku-menekoak dira, Nafarroako Parlamentuan egindako galdera bati emandako erantzunean aitortu duenez eta Euskararen Legea urratzen dute.

Honengatik guztiarengatik, ebazpen proposamen hau ekartzen dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiri sarreretako kartelak alda ditzan, Iruñeko bi izen ofizialak aipatutako kartele-tan ager daitezten.

Iruñean, 2014ko abenduaren 15ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso, Nekane Pérez Irazabal eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ludopatia sardezan Drogamenpekotasunei buruzko Foru Planean, substantziarik gabeko menpekotasunen esparruan.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ludopatia sardezan Drogamenpekotasunei buruzko Foru Planean, substantziarik gabeko menpekotasunen esparruan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nabai parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Iragan abenduaren 10ean lan bilera bat egin genuen "Aralar"-Nafarroako Ludopaten Elkartearen ordezkariekin, zeina Nafarroan arlo horretan lan egiten duen entitate bakarra baita. Ludopatia OMEk aitortutako gaixotasun bat da, areagotuz

doan gizarte-gaitz bat krisi ekonomikoko testuinguru batean, non gorantz doazen kirol-apustuen eta "on line" jokoen establezimenduak.

Joko-modalitate horiek preseski gazteen artean ari dira hedatzen, halako moduan non ludopatia kasuak ikaragarri ari baitira areagotzen gazteen artean. Berehalakotasuna edo anonimotasuna bezalako faktoreek erraztu egiten dute joko mota honetarako sarbidea, eta zailtzen dute, gainera, problema bat edukitzeari buruzko kontzientzia izatea.

Ludopatiak oro har dauzkan ondorioak (eta gazteenarenak, bereziki) suntsitzaileak dira, maila ekonomikoan, auto-estimari eta pertsonen arteko harremani dagokienez, ikaskuntza-prozesuan eta abarretan.

Drogamenpekotasunaren aurkako Foru Planari buruzko eztabaidaren esparruan, Parlamentuak Gobernua premiatu zuen ludopatia sardezan substantziarik gabeko adikzio gisa; baina, planaren web-atarian egiazta daitekeen bezala, IKTak, bideojokoak, telebista eta abar baizik ez dira jasotzen, joko edo apustuak berariaz bildu gabe.

Hori dela eta, gaixotasun horri buruzko informazio-, kontzientziazio- eta prebentzio-lanak areagotu behar dira, bereziki gazteen artean. Alde batetik, apustu-establezimenduetan sartzeari dagokienez, adingabeen babesa bermatu beharko litzateke. Eta bestetik, koordinaziorako eta departamentuen arteko lanerako esparru egonkorra bermatu beharko litzateke, ikastetxeetan eragin-kortasunez lan egin dadin.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ludopatía modu eraginkorrean sar dezan Drogamenpekotasunaren aurkako Foru Planean, substantziarik gabeko adikzioen artean, eta bereziki gazteen artean gora egiten ari den arazo horri buruzko informazio- eta kontzientziazio-kanpaina berariazkoak egin ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du koordinazio-tresna formal eta egonkorak ezar ditzan elkarte horren eta Osasun Departamentuaren, Hezkuntza Departamentuaren eta Gizarte Gaietako Departamentuaren artean, gazteen ludopatiaren prebentziorako berariazko plan bat egiteko, non honakoak bilduko baitira: familientzako, osasun-langileentzako eta

irakasleentzako prestakuntza, eta gai hori ikaste-teen lantzeko hezkuntza materialak sortzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar adina baliabide jar ditzan ludopatía prebenitzera eta artatzera bideratutako ekimenetarako, ondorio pertsonal, familiar eta sozial larriak dauzkan gaitz bat baita.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du har ditzakeen araugintza-neurriak azter ditzan, kirol apustuen establezimenduetan kontrol-neurriak ezartze aldera, adingabeek haietara sartzerik izan ez dezaten.

Iruñean, 2014ko abenduaren 15ean.

Eledunak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da langile publikoekin bete dezan mendekotasunagatiko prestazioak eskatzen dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoa baloratzeko zerbitzu pribatizatua.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita langile publikoekin bete dezan mendekotasunagatiko prestazioak eskatzen dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoa baloratzeko zerbitzu pribatizatua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premia-

tzen da langile publikoekin bete dezan mendetasun-prestazioen eskatzaileen gaitasun ekonomikoa baloratzeko zerbitzua, zeina pribatizatuta baitago.

Gure taldeak egindako parlamentu-galdera baten bidez jakin dugu, erabiltzaileen kexen bidez horren berri izan ondoren, Nafarroako Gobernuak mendetasun-prestazioen eskatzaileen gaitasun ekonomikoa baloratzeko sistema pribatizatu egin duela, eginkizun horretarako plantilla berekia eduki ordez.

Zeregin horretarako enpresa-kontratazioak 2010etik gaur arte egiten ari dira.

Tamalgarría da Gizarte Politiketako kontseilariak horretarako azaldutako arrazoi bakarra izatea "ezin izan dela Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziaren plantilla handitu lan horiek egiteko profil egokia (ekonomialariak) duten pertsonekin"; izan ere, datei erreparatuta, ikusten dugu pribatizazio hori 2010etik gertatzen ari dela eta berriki ogasuneko ikuskatzaileak –hain zuzen ere, ekonomialari profilarekin– hartzeko enplegu eskaintza publikoa egin dela.

Mendetasun-prestazioen eskatzaileen gaitasun ekonomikoa baloratzea ezinbesteko lana da prestazio horiek eskuratu ahal izateko, eta, horrenbestez, zeregin soilik publikoa izan behar du, are gehiago onuradunen egoera ekonomikoa eta ondare-egoera

gutziz ezagutzea eskatzen duen lan bat denean, eta horrek eskatzen duenean onuradunei buruzko informazio guztiz isilpekoa eskuratzea.

Zalantzarik gabe UPNren "etxeko marka" bat da, zerbitzu publiko guztiak ahal den gehiena pribatizatzearen alde egina duen apustuan, kasu honetan administrazioaren kontrol-ekintza bera pribatizatzerainoko muturrera iritsita.

Horiek horrela:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak berehala kontrata dezan behar adina langile zerbitzu publikoen funtzionamendu zuzenerako beharrezkoak diren lanak egiteko eta, zehazkiago, mendetasun-presztazioen eskatzaileen gaitasun ekonomikoa baloratzeko zerbitzua emateko.

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur pobrezia-aren prebentzio eta kontrolerako sistema bat ezar dezan Nafarroako ikastetxeetan.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita haur pobrezia-aren prebentzio eta kontrolerako sistema bat ezar dezan Nafarroako ikastetxeetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako ikastetxeetan haurren pobrezia prebenitzeko eta kontrolatzeko sistema bat abian jartzea eskatzen da.

2014ko ekainaren 27an, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak erabaki proposamen bat onetsi zuen, zeinaren bidez aitortzen eta eskertzen baitzuen Gosariak proiektuaren bultzatzaileek

egindako lana, eta, halaber, jotzen baitzuen administrazio publikoei dagokiela ikasleen oinarritzko beharrezkoak asetzeko behar diren bideak detektatzea eta jartzea.

Joan den irailean, UNICEFek parlamentu-batzorde batean ohartarazi zuen haurren pobrezia gora egin duela Nafarroan. Erakunde horren arabera, 2013an, Nafarroan haurrek pobrezia pairatzeko arriskua % 30ekoa zen, eta nabarmentzen zuen pobrezia hori arintzeko hartutako neurriak ez direla izaten ari lortu nahi zen eragina, 16 urtetik beherako seme-alabak dituzten familiengan.

Bai Gosariak proiektuaren bitartez, bai UNICEF-Nafarroak bildutako datuen bitartez, egiazta daiteke adingabe asko eskolara gosalduta gabe joaten direla, beren familien egoera ekonomikoa dela eta. Egitate hori, horrenbestez, haur-pobrezia kasuen alarma seinalea da. Kasu bakoitza detektatzea eta egoera aztertzea funtsezkoak dira adingabea babesteko eta familia-egoerari konponbidea emate aldera ezarrita dauden laguntzak aktibatuz. Horregatik aurkeztu dugu ondoko erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du haurren pobrezia prebenitzeko eta kontrolatzeko sistema bat ezar dezan ikastetxeetan, haiekin batera lan eginda, irakasleek egituko inkesta anonimoen bitartez, non galdetuko baita zenbat haurrek gosaltzen duten egunero, ikasle bakoitzari buruzko jarraipen bat eginez pobrezia jasaten duten adingabeen egoerak detektatze aldera.

Iruñean, 2014ko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da ez dezan hartu CRANA fundazioaren behin betiko desagerraraztea ekarriko duen erabakirik.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita ez dezan hartu CRANA fundazioaren behin betiko desagerraraztea ekarriko duen erabakirik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Landa Garapeneko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

CRANA Fundazioa nazio mailako erreferente bat da, eta lidergoa du Uraren Foroa eta "Energia Batuz" Foroa bezalako ekintzetan; azken horrek, gizartean adostasun handia lortu zuen ingurumenaren arloan garrantzi handia duten gaietan: mugikortasun jasangarria, energia-aurrezpena eta -efizientzia, ibaien kudeaketa eta uraren erabilera efizientea.

Nafarroaren, Europaren eta planetaren etorkizuna, klimari buruzko munduko goi-bileran aditza eman den bezala, jasangarritasunaren arloko politiken, energia-erabilera egokiaren eta atmosferara egiten diren CO2 emisioen baitan dago, eta horretarako guztirako badirudi fun-

tsezkoa dela CRANA Fundazioaren esperientziaz baliatzea.

Fundazioa, zeina sektore publikoaren eta pribatuaren arteko adostasunez sortu baitzen, % 50eraino bere burua finantzatzera iritsi zen, eta 26 langile bezainbeste izan zituen, Europako eta beste babesle batzuen proiektuen kudeaketari esker.

Parlamentu honek, eta horrenbestez Nafarroako herritarrek, behin baino gehiagotan adierazi izan dute, Osoko Bilkuraren zein dagokion batzordean bitartez, CRANA Fundazioari eustea nahi dutela, baina Nafarroako Gobernuak ez du kasurik egin, argudiotzat jarriki aurrezpen ekonomikoa eta Fundazioaren eginkizunak departamentuak ere gara ditzakeela, eta aholku-lanak, berriz, sektore pribatuak.

Nafarroako 2015erako aurrekontu-proiektuan, urte horretarako aurreikusten baita Fundazioaren azkentzea, LGPa amaitzen denean, ikusten dugu departamentuak bere eginkizunen parte bat kanpoan kontratatuko dituela, Tracasaren eta GANen esku utziko baititu departamentuko nekazaritza ataleko funtzionarioek egin ohi zituzten lan batzuk.

Beren lanak egin ezinik daude eta CRANAREN ere beren gain hartu behar dituzte?

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du inongo erabakirik ez dezan har CRANA Fundazioaren behin betiko deuseztatzea dakarrenik, 2015eko foru hauteskundeetatik sortzen den Gobernuak askatasuna izan dezan erabaki hori hartzeko eta Gobernu horrek erabaki dezan Nafarroak etorkizunik eduki ote dezakeen jasangarritasunaren arloko politikarik gabe eta politika horretarako behar diren baliabideak jarri gabe; izan ere, baliabide horien artean CRANA funtsezko zutabe litzatekeela uste dugu.

Iruñean, 2014ko abenduaren 18an

Foru parlamentariak: M^a Carmen Ochoa Canela, Víctor Rubio Martínez, Patxi Zabaleta Zabaleta eta Marisa de Simón Caballero

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die San Martin Unxeko Santa Zita egoitzako langileei.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2014ko abenduaren 16an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die San Martin Unxeko Santa Zita egoitzako langileei".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die San Martin Unxeko Santa Zita egoi-

tzako langileei; bereziki, beren lanpostua galdu dutenei.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gatazkan esku har dezan eta, ahal duen neurrian, baliabide guztiak erabil ditzan langileen, IDEA enpresaren eta San Martin Unxeko Udalaren arteko bitartekotza egiteko".

Iruñean, 2014ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan Liburutegi Publikoen Sarean gertatzen diren aldi baterako edo betiko bajen eta lanaldi murrizketen ondorioz hutsik geratzen diren lanpostuak.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2014ko abenduaren 16an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan Liburutegi Publikoen Sarean gertatzen diren aldi baterako edo betiko bajen eta lanaldi murrizketen ondorioz hutsik geratzen diren lanpostuak"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bete ditzan Liburutegi Publikoen Sarean gertatzen diren aldi baterako edo behin betiko bajen eta lanaldi murrizketen ondorioz hutsik geratzen diren lanpostu guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar adinako giza baliabidez eta baliabide materialez horni ditzan liburutegi publikoak, kalitatezko zerbitzua, egungo gizarte-eskariaren arabera, eman ahal izateko."

Iruñean, 2014ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bide berriak azter ditzan ETB Nafarroa osoan LTDaren bidez ikusteko.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2014ko abenduaren 16an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bide berriak azter ditzan ETB Nafarroa osoan LTDaren bidez ikusteko"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du LTD bidez ETB Nafarroa guztian ikusteko bide berriak urratzera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ETB Nafarroan lehenbait lehen ikusteko formulak bila ditzan; esaterako, egungo ETBren sare analogikoa digitalizatuz edo bestelako neurriekin."

Iruñean, 2014ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak jotzen baitu iraupen luzeko langabetuentzako laguntzak bateragarri izan behar duela gizarteratze-errenta jasotzearekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko abenduaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du justizia sozialeko eta lege eta autogobernuarekiko errespetuari dagokion kontua dela Gobernu Zentralak bateragarri egin ditzala iraupen luzeko langabetuentzako laguntza berria eta gizarteratze-errenta.

2. Halaber, adierazten du justiziari eta Nafarroaren autogobernuarekiko errespetuari dagokien kontutzat jotzen duela Estatuak hitzarmen ekonomikoaren esparruan Nafarroari ordaina ematea gai horretan izan duen gastu behar baino handiagoa dela-eta”

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu konpromiso irmoa duela haustura hidraulikoaren erabilera debekatzen duen foru legearen edukiarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko abenduaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du konpromiso irmoa duela urriaren 15eko 30/2013 Foru Legearen edukiarekin. Foru lege horren bidez debekatzen da Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean gasa ikertzeko eta erauzteko teknika ez-konbentzional gisa haustura hidraulikoa erabiltzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentralari eta ministerio eskudunei eskatzen die atzera bota ditzaten gas-esplorazio eta -erauzketa ez-konbentzionalerako emandako baimenak, gure erkidegoko lurraldean eragina duten proiektu guztietakoak. Halaber, eskatzen dugu ez dadila baimen gehiagorik eman.

3. Nafarroako Parlamentuak berriz ere adierazten du kezka duela Espainiako Gobernuaren etengabeko interferentziak direla eta, zeren eta sistematikoki errekursoak aurkezten baititu Konstituzio Auzitegian, soilik eta eskusiboki Nafarroako herritarrek erabakitzeak izan beharko lirartekeen arloetan, eta gure ekonomia eta gure garapena baldintzatzen baititu Foru Komunitateaz kanpokoak diren interesen mesedetan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure administrazioen erabakimena defenda dezan eta eskueran dituen ekintza guztiak abia ditzan Konstituzio Auzitegiaren erabakia atzera botatzeko, orain deuseztatuta dagoen foru legea defendatze aldera”

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, 2010ean hasitako Higiezinak berrantolatzeko Planaren hirugarren fasea bukatzeari buruzkoa.**MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, 2010ean hasitako Higiezinak berrantolatzeko Planaren hirugarren fasea bukatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babese-

an, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak iragarri du 2010ean hasitako Higiezinak berrantolatzeko Planaren hirugarren fasea bukatu dela.

Horri buruz, parlamentari honek honako xehetasunak jakin nahi ditu:

- Plana idatzi zen unean aurreikusitako helburuen betetze-mailaren gaineko balorazioa eta ebaluazioa; halaber, betetze-maila eta zenbait jarduketa bukatu ezin izateko arrazoiak.

- Nafarroako Gobernuak ildo horretan abiarazi nahi dituen jarduketa berrien egutegi xehakatuak.

- Zerrenda bat, urtez urtekoa, 2000tik gaur artekoa, zeinean xehakatzen baita Nafarroako Gobernuak higiezinaren errentamendu-ordainketen arloan guztira eginiko gastua.

Iruñean, 2014ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, laguntza espezializatuko zerbitzu desberdinetako egutegiak ixteari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, laguntza espezializatuko zerbitzu desberdinetako egutegiak ixteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

- Laguntza espezializatuko zerbitzu ezberdinetako egutegiak zergatik ixten dira?
- Zenbat denbora egoten dira itxita?
- "Erreserba"ra pasatzen diren eskaerak nola zenbatzen dira itxarote-zerrenden barruan?

Iruñean, 2014ko abenduaren 15ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, koloneko minbizia prebenitzeko programari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, koloneko minbizia prebenitzeko programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Laz-

kanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Gaia: koloneko minbizia prebenitzeko programa.

- Programa noiz zabalduko da herritar guztientzat?
- Zer zentrotan eta oinarrizko eskualdetan ari da egiten?

• Programa baliatzeko moduan dauden herritarren artean zer ehuneko ari da programan parte hartzen? Zehaztu, osasun barrutien arabera.

Iruñean, 2014ko abenduaren 15ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, iragan abenduaren 14an Bilbon jokaturako Lau eta Erdiko Pilota Txapelketaren finalari buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, iragan abenduaren 14an Bilbon jokaturako Lau eta Erdiko Pilota Txapelketaren finalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Joan den abenduaren 14an, Bilbon jokatu zen Lau eta Erdiko Txapelketaren finala, eta bi pilotari nafarrek hartu zuten parte.

Final hori dela eta, galdetu nahi dugu ea Nafarroako Gobernuaren ordezkariak ofizialik egon zen. Ezezkoan, arrazoiak azaltzeko eskatzen da, antolatzaileek gonbidapen ofizialik egin ote zuten, eta ea egokitzat jotzen den Administrazioak hone-lako ekitaldietan presentzia izatea.

Iruñean, 2014ko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko 33/2013 Foru Legearen 11. eta 12. artikulua betetzeari buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko

33/2013 Foru Legearen 11. eta 12. artikulua betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverriak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen 11. eta 12. artikuluek exijitzen dute “sinbolo, idazkun eta aipamen frankistak” kentzeko eta “sari,

izendapen, titulu eta ohore instituzionalak” baliogabetzeko.

1. Aipatutako legeko 11. eta 12. artikuluek zein betetze-fasetan daude?

2. 1936ko uztailaren 18tik 1975eko azaroaren 20ra zenbat pertsona eta zein urtetan izendatu dira Nafarroaren adopziozko seme edo alaba? Frankismoarekin lotutako zenbat pertsonak eduki dute erakundeen inolako aitortpen nahiz ohorerik, eta horietako zenbatek dira indarrean?

Iruñean, 2014ko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, Nafarroako Zerga Ogasunarekin indarrean dauden zerga-zorrei buruzko galderari emandako erantzunaren gainekoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Zerga Ogasunarekin indarrean dauden zerga-zorrei buruzko galderari emandako erantzunaren gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluek agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

8-14/PES-00195 espediente zenbakiko galderari, Zerga Ogasunarekiko zerga-zor indardunei buruzkoari, emandako erantzuna jasota, parlamentari honek ikusten du geroratutako zenbatekoen artean ez dagoela Zerga Ogasunak aitortu eta ziurtatutako zenbateko bat, zeinari buruzkoa baita azaroaren 27an onetsitako Foru Legea –kirol klub bati bere zerga-zorren gerorapena onesteko mugak eta baldintzak ezartzen dituen eta gertatutakoa aztertu ahal izateko baldintzak ezartzen dituen, eta kirol klub horrek Nafarroako Foru Komunitatearekin daukan zorraren berregituratzea onesten duena–.

Horri buruz, parlamentari honek honako xehetasunak jakin nahi ditu:

- Ekonomiako kontseilariak emandako erantzunean zergatik ez da aipatzen zenbateko horretara hurbiltzen den geroratzerik, orain arteko egingakorik?

- Eta arrazoi hori dela eta edo beste arrazoi batzuk direla eta, baliteke sartu ez diren beste zenbateko batzuk ere egotea? Kasua bada, haien zerrenda eskatzen dugu.

Iruñean, 2014ko abenduaren 18an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Mahaiaren 2013ko abenduaren 30eko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 22an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Langileen Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko erabakia, non eskatzen baitu 2014ko abenduaren 29an eta 30ean goizeko lanaldia ezartzea.

Kontuan hartuta 2014ko abenduaren 29an eta 30ean ez dagoela arratsaldeko parlamentu-jarduerarik aurreikusita, hona ERABAKIA:

Lehena. Aldatzea Mahaiaren 2013ko abenduaren 30eko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia; halatan, 2014ko abenduaren 29ko eta 30eko lanaldia goizekoa izanen da, baina horrek ez du

ezertan eragotziko beharrezkoak diren langileak eskuragarri egotea Legebiltzarreko lana goizeko ordutegitik kanpo egiteko, beharrezkoa izanez gero.

Bigarrena. Aldatzea Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2013ko abenduaren 30eko erabakiaren bidez onetsitakoa; halatan, 2014ko abenduaren 29an eta 30ean, 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera